



>> LITERATURA

## SANTIREN EROKERIA

*Eskupilotaren inguruan jakin-min handia izan du beti Santi Agirre deustuarrak. Informazio bila hasi zenean oso argitalpen gutxi dagoela konturatu zen. Orduan erabaki zuen ikerketa abiaraztea, duela bi hile liburu bihurtu zena.*

Testua: Lur Mallea Argazkiak: Ediciones Beta / Santi Agirre

"Zoragarria" izan da *Grandes campeones de la pelota mano* (Ediciones Beta, 2013) liburua-rekin gertatutakoa, "zentu guztietan", dio Santi Agirrek. Izan ere, bere lehen liburua-ren bigarren edizioa agortzear dago. "Ezin hobeto irten da dena", Gorputz Heziketako lizentziatu deustuarrarentzat. Bere ametsa bete du Santik. "Nik buruz buruko eskupilota txapeldunak ezagutu nahi nituen, beraiekin egon eta argazki bana egin". Eta lortu du, bai, 1940an txapelketa ofizialki abiarazi zenetik, bizirik dauden 20 txapeldun handiak elkarriketatzea (bost hilda daude)

eta euren bizipenak lan txukun batean argitaratzea.

Retegi II eta Ladis Galarzaren arteko norgehiagoka garaian pilotazaletu zen Santi Agirre. Etxean, bere aita ere oso zalea izan da betidanik. Aita bera izan du laguntzaile liburua-ren "abentura ero honetan". Biak ibili dira pilotariak bisitatzen eta pilotariak galdekatzeko. Horregatik semeei bezala aitari ere eskaini nahi izan dio Santik liburua.

2011ko irailean ekin zion dokumentazio lanari Bizkaiko foru liburutegian. Lehenago ere asko irakurrita zegoen aspaldiko final

eta pilotari handien inguruan. Duela 30, 40, 50, 60 urteko prentsa irakurrita "zein jende interesgarria, zergatik ez beraiekin hitz egin", pentsatu zuen, eta saiatzea erabaki zuen. Lagun baten bitartez egin zuen lehen kontaktua Hilario Azkarate txapeldun bizkaitarrarekin (elkarriketatatu eta zortzi hiler hil zen). "Oso egun ederra" eman zuen Elorri Azkaraterekin eta, lehen pauso hura eman eta gero, aurrera egin eta "txapeldun guztiekin" hitz egitea otu zitzaion.

Liburuaren ideia Juan Igancio Retegik (Retegi I) proposatu zion. Orduak hizketan eman eta



barkua bete herba

gero "polita geratuko da liburu batean", bota zion Santiri.

Liburua kaleratzeko argitaletxea aurkitzea prozesu luzea izan da, urte erdikoa. Hamaika argitaletxetatik pasa zen eta denek gauza bera erantzun zioten: "Zein interesgarria, baina gaur egun ezinezko da, duela bost urte etorri izan bazina...", harik eta Deustuko Ediciones Betara heldu zen arte. "Argitaletxe txikia dira, oso harreman estua sortu dugu; ezin pozago nago emaitzarekin".

Errespetu handiz idatzi du Santik eskupilotako txapeldunei buruz. "Kirol txikia da eskupilota, oso gurea. Txapeldun denek oso ondo tratatu naute, harrিতa utzi naute, eta hori ere islatu nahi nuen. Nire errespetua agertu nahi nien".

Orriak pasa eta pasa, 75 urtetan eskupilotak izan duen garapenaz ohartzen da irakurlea. Hasi frontoien koloretik eta pilotarien uniformera edota eskuetako babesgarrietara, aurrerapena sekulakoa da. Erraz eta gustura irakurtzen dira txapeldunen anekdotak eta oroitzapenak. Irakurlearen batek aitortu duenez, "hasi eta, nahi gabe, bukatu du liburua irakurtzen".



ZURE IKASTETXE PUBLIKOA / 2 URTETIK AURRERA / D EREDUA  
ATE IREKIEN EGUNA: Otsailak 7, zatoz gu ezagutzera!

Kantabria 2, 48015 Bilbo. Tel: 944758364

014924aa@hezkuntza.net / www.sanieskola.blogspot.com

Kontaktua eta erreserbak  
639 766 720  
info@pabellon6.org

ELKAR ZAITEZ GUREKIN

Denboraldi berrian egin zaitez bazkide

PABILOI 6  
Deustuko Erbera 47  
48014 Bilbao  
www.pabellon6.org

